

## ELOSURAKO EKINTZA PLANA

Ildo estrategikoa 1: Auzo identitatea sendotu.

Helburu orokorra: **auzotarren eta udalen arteko komunikazioa sendotu bi aldeen arteko elkarlanerako bideak finkatuz.**

1.1- Helburu zehatza: auzotarren implikazioa, eta beraien arteko elkarlana sustatu.

1.1.1- Elosun elkarte anitz eta dinamiko bat sortu. Elosuko auzo elkarte.	
1.1.2- Auzo elkartearen barne antolaketa zehaztu.	
1.1.3- Auzo identitatea sendotzeko ekintza ezberdinak antolatu.	

1.2- Helburu zehatza: auzotarren bilgunea definitu egokitu eta kudeaketa zehaztu.

1.2.1- Auzo elkarteak apaizarekin apaiz etxeko lokalaren erabilpenaz hitz egin. Urte batzutarako	
1.2.2- Udaletxeek Gotzaitegiarekin apaiz etxearen lokalaren erabilpena hitzartu.	
1.2.3- Auzo elkartearen elkargunea txukundu, egokitu eta gune polibalente bat sortu bertan.	

1.3- Helburu zehatza: udalek Elosurako partida ekonomikoa haunditu.

1.3.1- Kultur plangintza egituratu bat diseinatu eta udaletan aurkeztu. Auzoan egiten diren ekintza kulturalen zerrenda bat egin eta auzoko ume eta adinekoentzat ekintza berriak antolatu.	
1.3.2- Udaletxeen eta auzo elkartearen arteko adostasun batean oinarrituta kultur plangintza aurrera eraman.	

1.4- Helburu zehatza: udalen eta auzotarren arteko harremana hitzartu.

1.4.1- Auzoaren berri eman udalean: auzoak adostutako ekintza plana aurkeztu udal ordezkariari.	
1.4.2- Udaletxeetako landa auzoetako arduradunen eta teknikoen inplikazioa bermatu.	
1.4.3- Auzo elkartearen eta udaletako ordezkarien arteko harremana finkatu eta hitzartu.	
1.4.4- Azkoitiko eta Bergarako udaletxeen arteko elkarlana definitu, ekintza plana burutzeko.	

Ildo estrategikoa 2: Bizi kalitatea bermatu. Auzoan egun dagoen zerbitzu eskaintza hobetu.

Helburu orokorra: **Egun auzoan dagoen biztanle kopurua finkatu eta neurri egoki batean haunditu.**

**2.1- Helburu zehatza: Elosu auzoaren etorkizunaz hausnartu.**

2.1.1- Baserri eta etxe hutsen azterketa bat egin, eta hauen erabilera eta gestioaz hausnartu.	
2.1.2- Plazaren inguruan dagoen proiektua aztertu eta proiektu berria garatu.	
2.1.3- Auzoko kaskoan, lurren jabetzaren inguruan hitzegin eta akordioak hitzartu plazako proiektua martxan jarri aurretik.	
2.1.4- Proiektua exekutatu.	

**2.2- Helburu zehatza: oinarriko azpiegitura eta ekipamenduak egokitu.**

2.2.1- Azkoitia aldeko baserrietan ur orniduraren inguruko azterketa bat egin eta beharren arabera plangintza bat garatu. Etxesaga korta.	
2.2.2- Benta Osteko ganadutegiari, uraren tarifak aztertu. <b>Uraren kontsortzia.</b>	
2.2.3- Telefónica empresarekin harremanetan jarri eta telefonoaren posteak lurretik jaso eta modu egokian jartzeko eskatu.	
2.2.4- Elosuko antenaren ondoan errepikagailu bat ipini, auzora begira, auzoan TDTa ikusi ahal izateko. (seinalea jasotzeko CAPCILER VIA SATELITE)	
2.2.5- Auzoan interneta ipintzeko posibilitateak aztertu. WIMAX sistema.	
2.2.6- Hilerriaren bueltako hormak indartu eta txukundu.	

**2.3- Helburu zehatza: zerbitzu eskeintza hobetu.**

2.3.1- Auzoko bideetan elurrarekin sortzen diren arazoak aztertu eta plangintza bat garatu. (elur maila seinalizatzeko zutabeak, kitamiedos ak eta gatz ontziak, eta baserri bideetako elur kentze zerbitzua)	
2.3.2- Auzoan birziklatzeko kontenedoreak ipini eta hauen mantenua hitzartu udalekin.	
2.3.3- Plazatik albergarako bidean dauden kontenedoreak lotu haizeak mugitu ez ditzan.	
2.3.4- Azkoitia aldeko baserri eta etxeetako gutunontziak Aritz-Ederraga ko bidegurutzean jarri.	
2.3.5- Garraio eskolarrarekin dituzten arazoak aztertu eta irtenbide bat eman. Etxesaga k. Izeia, Iriaun, Ujalde, Agarre, Oskarbi.	
2.3.6- Elosurako egokia izan litekeen garraio zerbitzua aztertu eta sortu. Taxi-bus zerbitzua.	
2.3.7- Gizarte zerbitzuek eskeintzen dituzten zerbitzuen inguruko informazioa eskeini Elosuarrei.	
2.3.8- Panel informatibo bat ipini auzoan.	

Ildo estrategikoa 3: Elosun, garapen sozioekonomikoa sustatu.

Helburu orokorra: **Elosuko aktibitate ekonomikoa dibersifikatu eta sustatu.**

3.1- Helburu zehatza: Nekazaritza, jarduera ekonomiko nagusi eta bizibide dutenen jarraipena eta garapena garantizatzea.

3.1.1- Auzoko nekazariari, jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak dituzten azpiegiturak sortu. Nekazaritzara bideratutako laguntza ekonomiko eta fiskalen inguruko informazioa eskeini.	
3.1.2- Azkoitiko eta Bergarako azokak berpizteko proiektuak martxan jarri.	
3.1.3- Auzoan baserriar gazte bat instalatzeko, lur eskuragarritasuna aztertu.	
3.1.4- Gorlako kantina inguruko lurren inguruan Elosuko ganaduzaleek dituzten asmoak udalaren asmoekin uztartu eta akordio bat sinatu.	
3.1.5- "Loidi gainak" eko lurrak elosuko ganaduzaleei ganadutarako erabiltzeko aukera bermatu. Lurron subastan parte hartzea bermatu.	

3.2- Helburu zehatza: Elosu auzoari egokitutako turismo aktibitateak sustatu eta auzoa horretarako prestatu.

3.2.1- Herri bideak berreskuratu eta egokitu. Zerrendatu eta mantenu plangintza bat garatu.	
3.2.2- Auzora jendea erakartzeko ekimen berritzaileak antolatu. Mendiko bizikletarentzako ibilbideak seinalizatu.	
3.2.3- Apaiz etxearen egungo erabileraren inguruko ausnarketa sakon bat egin. Auzo elkartearen asmoak eta apaizarenak uztartu, apaiz etxearen inguruko proiektu amankomun batean.	

3.3- Helburu zehatza: sortu daitezkeen jarduera ekonomiko eta ekimen berriei bideak ireki.

3.3.1- Ekimen berritzaileen inguruan egon daitezkeen informazioa zabaltzea eta aholkularitza zerbitzua eskeini.	
3.3.2- Sortzen diren proiektu eta Jarduera ekonomiko berriak bultzatu.	